

BI MILA ETA HAMAHIRUKO URRIAREN HAMASEIAN, ARRATSALDEKO ZAZPIETAN, EGINDAKO BATZAR ARRUNTEKO AGIRIA.

E T O R L E A K

Alkate Lehendakaria:

FRANCISCO JAVIER ARTAECHEBARRIA ZUAZO

Jaun Zinegotziak:

MARIA JESUS BARAYAZARRA ELORRIETA

EUGENIA BIDAGUREN PUJANA (MIRENE)

JUAN ANASTASIO IBAIBARRIAGA BASTERRECHEA

MARIA ROSA ONAINDIA URRIOLABEITIA

Falta dira justifikazioz:

DEBORA BROVEDANI COLLEDANI

JOSE ANTONIO SARRIONAINDIA BICANDI

Idazkaria:

ARTURO GABIOLA URRUTIKOETXEA

=====

"MUNITIBAR-ARBATEGI-GERRIKAITZ, elizate eta uriko Udal Batzarategian, bi mila eta hamahiruko urriaren hamaseian, arratsaldeko zazpiak direla, bertaratutakoek ahobatez adostuta Udal Arrunteko Bilkura egiteko asmoz, Francisco Javier Artaechebarria Zuazo Alkate jaunaren Lehendakaritzapean, goian aipatutako jaun/andre Zinegotziak batu egiten dira.

Ondoren eguneko aztergaiko arazoak tratatzera jotzen da, ondoko akorduak hartzen direlarik:

1.-AURREKO BATZARREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, EGOKIA BALDIN BADA, ONARPENA EGITEA.-

Alkateak Udal Batzarrak bi mila eta hamahiruko irailaren hogeita bostean egindako Batzar Arrunteko akta irakurtzen du, daudenen ahobatez, onartua delarik.

2.- OIZPERI DAGOZKIONAK.-

Bizkaiko Foru Aldundiko Ongizate Sailekoekin izandako batzarraren ondoren, hemendik aurrera, udal, Oizpe eta Diputazioen arteko harremanetan, behintzat 15 plaza kontzertaturik eta 25 sanitate plaza mantentzeko ahaleginak egingo diren konpromisoa azaldu du Ongizate Foru Diputatuak. Udal hau Oizpeko Sozio laguntzaile izateko posibilitatea aztertuz.

3.- BISCAYTIK EGITARAUARI DAGOZKIONAK.-

3.1.- BISCAYTIK PROIEKTUA GARATZEA.-

Udalbatzak 2012ko otsailaren 22an hartutako 5. akordua (hau da, BiscayTIK egitarauari atxikimendua), dela eta Alkateak orain atxikimendu prozesu honetan IV eta V. Fasetan egin behar diren tramitazioak finkatuko dituen akordio Berezia, sinatu behar direla azaltzen du.

Horretaz gain, Biscaytik proiektuarekiko atxikimendurako hitzarmen markoaren garapenerako honako akordio berezi hauek sinatu behar dira:

- Proiektuko jarduera administratiboaren menpe dauden izapideak egiteko metodoa erabakitzeari buruzkoak..
- Udal webguneko edukiak edukitzearen eta argitaratzearen erantzukizunari buruzkoak.

Gauzak horrela, Udalbatzak honako puntu hauek aztertu eta ondorengo erabakiak hartzen ditu.

3.2.- BISCAYTIK PROIEKTUAREKIKO ATXIKIMENDURAKO HITZARMEN MARKOAREN GARAPENERAKO AKORDIO BEREZIAK, PROIEKTUKO IZAPIDE ZEHATZAK BIDERATZEARI, KAUTOTZEARI, IDENTIFIKATZEARI ETA INFORMAZIOARI BURUZKOAK IV ETA V FASEKO TRAMITEENTZAT.-

Toki-erakunde hau BISCAYTIK PROIEKTUARI atxikitzeke Udal honek Biscaytik Fundazioarekin sinatu duen hitzarmen markoaren garapenerako akordio berezi horren zirriborroaren berri eman du Alkateak, proiektuko IV. Eta V. Faseko tramiteentzat.

Udalbatzak, bertaratutakoek aho batez erabakita, udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa baino gehiago da (abenduarien 16ko 57/2003 Legeak aldatutako Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 artikuluan eskatzen den gehiengoa), eta proposatuta bereganatuz, ondorengoa erabakitzen du:

LEHENENGOA: Hitzarmen markoaren garapenerako sinatuko da Bizkaiko Foru Aldundiko Biscaytik fundazioarekin, proiektuko IV. Eta V. Faseetan tramiteentzat

Akordio Berezia.

BIGARRENA: Alkateari, 15.346.462-B NAN zk. duen Francisco Javier Artaechebarria Zuazo jaunari (edo bera legez ordezten duen pertsonari), ahalmena ematen zaio Munitibar (Arbatzegi-Gerrikaitz)eko Udalaren izenean akordio berezi hau sinatzeko, baita behar diren gestioak egiteko ere erabaki hau aurrera eraman dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen kopia ziurtatua bidaliko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Biscaytik fundazioari.

3.3.- BISCAYTIK PROIEKTUAREKIKO ATXIKIMENDURAKO HITZARMEN MARKOAREN GARAPENERAKO AKORDIO BEREZIAK, PROIEKTUKO JARDUERA ADMINISTRATIBOAREN MENPE DAUDEN IZAPIDEAK EGITEKO METODOA ERABAKITZEARI BURUZKOAK.

Toki-erakunde hau BISCAYTIK PROIEKTUARI atxikitzeke Udal honek Biscaytik Fundazioarekin sinatu duen hitzarmen markoaren garapenerako akordio berezi horren zirriborroaren berri eman du Alkateak, proiektuko jarduera administratiboaren menpe dauden izapideak egiteko erabakitzeari buruzkoa. **Udalbatzak, bertaratutakoek aho batez erabakita, udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa baino gehiago da (abenduarien 16ko 57/2003 Legeak aldatutako Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 artikuluan eskatzen den gehiengoa), eta proposatuta bereganatuz, ondorengoa erabakitzen du:**

LEHENENGOA: Hitzarmen markoaren garapenerako sinatuko da Bizkaiko Foru Aldundiko Biscaytik fundazioarekin, proiektuko jarduera administratiboaren menpe dauden izapideak egiteko erabakitzeari buruz Akordio Berezia.

BIGARRENA: Alkateari, 15.346.462-B NAN zk. duen Francisco Javier Artaechebarria Zuazo jaunari (edo bera legez ordezten duen pertsonari), ahalmena ematen zaio Munitibar (Arbatzegi-Gerrikaitz)eko Udalaren izenean akordio berezi hau sinatzeko, baita behar diren gestioak egiteko ere erabaki hau aurrera eraman dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen kopia ziurtatua bidaliko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Biscaytik fundazioari.

3.4.- BISCAYTIK PROIEKTUAREKIKO ATXIKIMENDURAKO HITZARMEN MARKOAREN GARAPENERAKO AKORDIO BEREZIA, UDAL WEBGUNeko EDUKIAK EDUKITZEAREN ETA ARGITARATZEAREN ERANTZUKIZUNARI BURUZKOA.-

Toki-erakunde hau BISCAYTIK PROIEKTUARI atxikitzeko Udal honek Biscaytik Fundazioarekin sinatu duen hitzarmen markoaren garapenerako akordio berezi horren zirriborroaren berri eman du Alkateak, proiektuko webguneko edukiak edukitzearen eta argitaratzearen erantzukizunari buruzkoa

Udalbatzak, bertaratutakoek aho batez erabakita, udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa baino gehiago da (abenduarien 16ko 57/2003 Legeak aldatutako Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 artikuluan eskatzen den gehiengoa), eta proposatuta bereganatuz, ondorengoa erabakitzen du:

LEHENENGOA: Hitzarmen markoaren garapenerako sinatuko da Bizkaiko Foru Aldundiko Biscaytik fundazioarekin, proiektuko webguneko edukiak edukitzearen eta argitaratzearen erantzukizunari buruz Akordio Berezia.

BIGARRENA: Alkateari, 15.346.462-B NAN zk. duen Francisco Javier Artaechebarria Zuazo jaunari (edo bera legez ordeztzen duen pertsonari), ahalmena ematen zaio Munitibar (Arbatzegi-Gerrikaitz)eko Udalaren izenean akordio berezi hau sinatzeko, baita behar diren gestioak giteko ere erabaki hau aurrera eraman dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen kopia ziurtatua bidaliko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Biscaytik fundazioari.

4.- EFICIENCIA ENRGETIKOA DELA ETA, SUBENTZIO ESKAERA.-

Udalbatzak gai hau hurrengorako uztea erabakitzen du.

5.- AGINDUTAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA.-

Alkateak agindutako 2013/19 zenbakidun dekretuaren berri ematen da.

Udal Batzar Osoak, ahobatez, informazioa jasotzen du.

6.- GALDE-ERANTZUNAK.-

- Onaindia zinegotziak eskatzen du, Herriko tabernaren maizterrari bidaliko zaion idatzian, zorrak ordaintzeko emango zaion epe berberaz kontrako irizpideak edo iradokizunak aurkezteko ematea, aurkeztuko duena Udalbatzak aztertuko duela jakinaraziz.

- Onaindia zinegotziak aurtengo euskarako klasea jasotzeko taldea eratu duelakoan dagoela azaltzen du. Dena dela, ondo enteratuko dela gaineratzen du.
- Alkateak eta Bidaguren zinegotziak azaltzen dute, Mikola baserriko txabolan kultur aztarn interesgarriak azaldu direla, Lea Ibarreko arkitektoaren ustez.
- Alkateak, jendeak txakurrez kexatu denez, Txakur jabe bakoitzak herriko hiriguneetan, txakurrak loturik ibili eta egingo dituen kakak garbitzearen erantzukizuna hartu behar dituela aginduko duen bandoa aterako duela azaltzen du. Udalbatzak, ahobatez, baieztatuz.
- Idazkariak, herriko ez ofizialeko harriarekin Gernikan gertatutakoa kontuan izanik, harriari kandadua ipini zaiola azaltzen du. Udalbatzak zaldi-mando probetarako harria erabiltzeko arauak idatziz jarri eta interesatuak harria (ofiziala ala ez) erabili nahi duen bakoitzean, baimena idatziz eskatu behar duela onartzen du.
- Alkateak eta Onaindia zinegotziak eskupilota frontoi zikinkeriaz eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, frontoia garbitzeko arauak ipini behar direla erabakitzen du, horren ardura Onaindia eta Barayazarra zinegotzien eskuetan utziz.
- Onaindia zinegotziak, kalean entzundako kexa batzuk azaldu ondoren, Udalbatzak, ondorengoa erabakitzen du:
 - Gaztetxeko jendeari esatea, jaiak eta asteburu ondoren, Gaztetxeko ingurumenak bere onean bueltazeko ardura hartu behar duela.
 - Mantenimendurako operarioari esatea:
 - Ume parkea astean behin garbitzeko.
 - Gerrikaitzeko plaza garbitzeko.
 - Herriko kotxea, gauzak pribatuetarako ez erabiltzeko.
- Azken eskola kontseiluan eskatutakoa kontutan izanik, mantenimendurako operarioari, esatea, eskola zuzendariarekin egon eta eskatutako lanak egin, horretarako gaitatua bada (eskailerak pintatzeko, gela banatzeko, eta abarretan).

AZTERGAITIK KANPO

Batzar Osoak, ROFeko 83 artikulua agintzen duenaren arabera, aho batez alde zuzenetik larriak bailitzan azalduz, ondoko gai hau tratatzea erabakitzen du:

A).- KONTU KREDITUA LUZATZEA.-

Kontutan izanik, inbertsioetarako erakunde ezberdinetatik adjudikaturik ditugun diru laguntzak oraindik ez ditugula jaso, eta ostera dagozkien zertifikazio batzuk dagoeneko ordaindurik ditugula eta beste batzuk epe oso laburrean likidatu behar ditugula,

Eta kontutan izanik honen ondoriozko altxortegi mailako likidezia arazoei ekiditzeko BBKren aurrean EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA (150.000) Eurotako kreditu kontua planteatu dugula,

Udal Batzar Osoak, bertaratutakoek aho batez erabakita, udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa baino gehiago da (abenduarien 16ko 57/2003 Legeak aldatutako Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 artikuluko 1) atalean eskatzen den gehiengoa), ondokoa erabakitzen du:

Lehena: BBKrekin altxortegi kreditu kontua irekitzea baldintza hauotan:

Inportea: EHUN ETA BERROGEITA HAMARMILA (150.000) Euro.

Epea: urte bete.

Interesak: Euribor urtekoa+ % 4,75 (hiruhileko).

Irekitze komisioa: %0,25.

Erabiltzen ez denaren komisioa: %0,10 (hiruhileko).

Ordainketa era: Interesak hiruhileko eta amortizazioa azkenean.

Bigarrena: Erabaki honen berri Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Azterlanetarako eta Toki Erakundeentzako Ekonomi Laguntzarako Zerbitzuari ematea.

Hirugarrena: Alkateari, 15.346.462-B NAN zk. duen Francisco Javier Artaechebarria Zuazo jaunari (edo bera legez ordeztzen duen pertsonari), ahalmena ematen zaio aipatutako kontu kredituaren kontratua Munitibar (Arbatzegi-Gerrikaitz)eko Udalaren izenean sinatzeko, baita behar diren gestioak egin eta beharrezkoa izango den dokumentazioa sinatzeko ere erabaki hau aurrera eraman dezan.

Laugarrena: Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileari aipatutako kontratua adberatzeko eskatzea. Idazkari-Kontuhartzailearen aurrean kontratua sinatzen bada formalizazio gastuak aurreztuko dira.

Eta beste arazorik tratatzeko ez dagoenez, Udal Batzarrari amaiera ematen dio Alkate Jaunak, iluntzeko bederatziak laurden gutxiak direlarik, eta erabakitakoa jasota geratzeko agiri hau egiten dut".